Xole Aramendi

‘Sastraka’ diziplina anitzeko lana, liburu-orrietatik paretera

Fecha
30.09.22 - 18.11.22

Lugar
Gipuzkoa - Donostia

Pello Lizarralde, Jose Ignacio Agorreta, Imanol Ubeda eta Imanol Rayo, gaur, erakusketan. (Jon URBE | FOKU)

PUBLICIDAD

Ezustean, bide luzea ari da egiten ‘Sastraka-maleza’. Ezustean, Pello Lizarraldek bere hamabi idatzi Jose Ignacio Agorretari bidali zizkionean «asko jota obra pare bat» inspiratuko zizkiola uste izan baitzuen. Izan ere, eraikin itxietako margoak egiten zituen ordura arte nafar artistak eta lehen aldiz, Lizarralderen testuak irakurri ondorengo bulkadari jarraika, paisaietan barneratu zen. Eta 27 lan margotu zituen, horietatik 12 euskarazko idatziei loturik eta beste hainbeste gaztelerazkoei. «Pelloren liburuen azalak neuk egiten ditut baina euskararik ez dakidanez lehen aldia izan da bere liburua irakurri ahal izan dudala», adierazi du, pozarren.

«Sekula ez dut aurrez idatziko gidoiarekin lan egiten eta kasu honetan bai. Nire ohiko paseoetan ordura arte ezer esaten ez zidaten irudiek, bapatean, beste esanahia hartu zuten Pelloren idatziak irakurri ondoren», esan du.

Bidean Imanol Ubeda musikaria batu zitzaien. Hasieran kostata, baina kanta bana idatzi zien Ubedak testuei. «Pelloren testuak ez ziren abesteko idatziak eta zaila egin zitzaidan. Lehen esaldia eta amaierako esaldiari, kanta bana egin nien hasiera eta gero etorri ziren besteak», gogoratu du.

Azkenik Imanol Rayo zinemagileak egin zuen bat. Zinemako kamera alboratu eta bere beste pasioari helbu zien argazkia kamera eskuan. ‘Inor ez da kalterik gabe ateratzen oroitzapen batetik’, dio testuan esaldi batek. Eta konturatu zen horrexek bat egiten zuela garai hartan bere aitaren aldeko familiaren baitan zuten auzi batekin: Almaden (Ciudad Real) herri txikian familiak zuen etxearekin zer egin erabakitzea. «Bi elementuek bat egin zuten», kontatu du.

«Filma berezia da, irudiak eta soinua bakoitza bere aldetik joan dira», azaldu du.

Erein argitaletxearekin ondutako liburu mardulak islatzen du jorratutako bidea eta argitalpenetik hilabete batzuk igaro zirenean erakusketa prestatu zuten. Iruñean eta Gasteizen ikusgai egon ondoren Donostian irekiko ditu ateak ostiral honetan. Urtarrilean Bilbora eramateko asmoa agertu dute.

Lizarralderen 24 testuak, Agorretaren 27 margo, Rayoren 36 argazki eta Ubedak sortutako abestiak entzun daitezke erakusketan.

«Askatasuna eta konfiantza»

Lau lagunen artean prozesu honetan lan egitean sortutako «askatasuna eta elkarrenganako konfiantza» nabarmendu ditu Lizarraldek gaur egindako aurkezpenean. Ez da ohikoa izaten bere esanetan. «Ez da proiektua bere horretan. Eta hasieratik laurok horrela egitea erabaki izan bagenu emaitza ez zen bera izango», argitu du.

‘Inoiz ez da inora itzultzen baina itzuli egin behar da horretaz konturatzeko’, esan zuen Carlos Pujolek eta ideia hori airean ibili da. Ezinezko bidaia proposatzen du Lizarraldek, heriotzaren kontzientzia handitzen doan neurrian iraganera itzultzeko maiz egiten den bidearena.

Ernest Lluch kultur etxean ikus daiteke erakusketa. Ostiral honetan 19.30ean egingo da irekiera eta lau sortzaileen mahaingurua izango da Garbiñe Ubedak gidatua.

Urriaren 31n (19.00) ‘Zakur goseti bat dabil usnan’ solasaldi musikatua eskainiko dute Imanol Ubeda eta Jon Eskisabel kazetariak. Eta azaroaren 14an (19.00) Pello Lizarralde solasean arituko da Beñat Sarasolarekin Literaktum jaialdian.

Erakusketaren bisita ordutegia astelehenetik ostiralera 10.00etatik 14.00etara eta 16.00etatik 20.30era da. Larunbatetan 10.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 20.00etara da. Sarrera doan da.

Ubicación

Ernest Lluch Kultur Etxea
Anoeta Pasealekua, 7
Donostia. Gipuzkoa